

PUMP TRACK ZIRKUITUA ERABILTZEKO PRESTAKUNTZA TAILERRA

Aurreko urtean, Andoaingo Udalak apustu egin zuen herrian Pump Track modalitatea sartzearen alde, gure inguruan gero eta indar handiagoa hartzen ari baita. Horrela, bizikleta bezalako ibilgailu jasangarria sustatu zen eta gure haur eta nerabeentzako aisialdirako espazio berri bat sortu zen.

Jose Luis Verdasco Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak adierazi du "dagoeneko asko hurbiltzen dira Miranda pasealekuan dagoen Pump Track zirkuitura, eta beren aldapa eta bihurguneez gozaten dute. Horregatik, Pump Track zirkuitua eta haren erabilera seguru eta egokia ezagutarazten jarraitzeko, Udalak tailer praktiko bat antolatu du martxoaren 26an, 11:00etatik 12:30era, mugikortasun iraunkorarekin zerikusia duten jardueren barruan".

"Ikastaroa adin guztietara egokituko da eta zirkuitua nola erabili ikasteko balioko du, baita trebetasuna lantzeko eta maila igotzeko ere. Horretarako, Pump Track-eko hezitzaile aditu batek zuzenduko du tailerra. Haurrak eta gazteak animatzen ditugu martxoaren 26an ikastera eta gozatzera etor daitezen" amaitu du Verdasco.

Andoain, 2023ko martxoak 16

TALLER FORMATIVO EN EL USO DEL CIRCUITO PUMP TRACK

El año pasado el Ayuntamiento de Andoain apostó por dar cabida en la localidad a la modalidad Pump Track, que cada vez cobra más fuerza en nuestro entorno. De esta manera, se promovió un vehículo sostenible como la bicicleta y se creó un nuevo espacio de ocio urbano para nuestras niñas, niños y adolescentes.

El concejal de Urbanismo y Medio Ambiente Jose Luis Verdasco ha reflejado que "ya son muchos los que se acercan al circuito Pump Track situado en el Paseo de Miranda, y disfrutan de sus cuestas y curvas. Es por ello, que con el fin de seguir dando a conocer el circuito Pump Track y su uso seguro y adecuado, desde el Ayuntamiento y dentro de las actuaciones vinculadas a la movilidad sostenible que venimos realizando, se ha organizado un taller práctico el próximo día 26 de marzo en horario de 11:00h a 12:30h".

"El curso estará adaptado a todas las edades y servirá tanto para aprender cómo utilizar el circuito, como para ejercitar la habilidad y ascender de nivel. Para ello, estará al frente del taller un educador experto de Pump Track. Animamos a niñas, niños y jóvenes a que el 26 de marzo se acerquen a aprender y a disfrutar" ha concluido Verdasco.

Andoain a 16 de marzo de 2023